



2012
2013

MUGIKORTASUN IRAUNKORRA



INGURUMENA - AGENDA 21
HONDARRIBIKO UDALA



ESKOLAKO AGENDA 21
HONDARRIBIA



HONDARRIBIKO
UDALA



NORABIDE EGOKIAN GOAZ

Aurten jada 5 urte bete ditugu Eskolako Agenda 21 programaren baitan. Beraz, **ZORIONAK**, bereziki, **Hondarribiko eskoletako kideei!!**

2012/2013 ikasturtean, 2.000 ikasle inguruk landu dugun gaia **MUGIKORTASUN IRAUNKORRA** izan da, aurreko ikasturtean bezala. Aldizkari honetan zehar aurten emandako pauso nagusiak laburbilduko dizkizuegu.


VAMOS EN LA BUENA DIRECCIÓN

Hemos cumplido 5 años en el programa de la Agenda 21 Escolar; **ZORIONAK!!** Durante este curso hemos seguido trabajando el tema de la **MOVILIDAD SOSTENIBLE**. Por ello, mediante esta revista, queremos informaros sobre los pasos que hemos dado durante el curso 2012/2013.



NOLAKOA IZAN DA PARTE-HARTZEA?

Maiatzeko Eskolarteko Foroan Hondarribiko Eskolako Agenda 21en parte hartzen duten estamentu eta eragile ezberdinen partaidetza nolakoa izan den aztertu dugu. Hona hemen emaitzak:



Aurreko ikasturtearekin alderatuz, ikasleen, irakasleen, gurasoen eta udal ordezkarien parte-hartzearen kalitatea bere horretan mantendu da. Irakasle ez diren eskolako gainerako langileen parte-hartze mailak, aldiz, okerrera egin du.



DIAGNÓSTICO DE LA PARTICIPACIÓN

En el Foro Interescolar hemos evaluado la calidad de la participación de la comunidad escolar en la Agenda 21 Escolar y, en general, podemos decir que la participación del alumnado es buena. Por otro lado, el nivel de la participación del resto de estamentos y del Ayuntamiento es mejorable.





ZER EGIN DUGU IKASTURTEAN ZEHAR?

Honakoak dira ikasturte honetan zehar eskolek eman ditugun pauso nagusiak:

- Aurreko ikasturtean mugikortasun iraunkorraren gaian eskolek hartutako konpromisoen betetze-maila aztertu dugu eta konpromisoen zerrenda berrikusi dugu
- Mugikortasun iraunkorraren gaian sakontzen jarraitzeko sentsibilizazio ekintza ezberdinak egin ditugu: bideoak, irratsaioak, jolasak, Txoko Berdea apaintzea, ...
- Eskola bakoitzetik gertuen geratzen den eremuaren kale-ikerketara egin dugu, Hondarribiko auzo ezberdinetako espaloi eta bide segurtasunari buruzko egoera orokorra zein den behatzeko
- Urtarrilean, Hondarribiko Udaleko ordezkariekin parte-hartze foroa antolatu genuen, aurreko ikasturtean planteatutako eskaeren erantzunak jasotzeko
- Eskola barruan, Ingurumen Batzordearen bilera ezberdinak antolatu ditugu, mugikortasunari buruzko lana antolatzeko, pauso ezberdinen jarraipena egiteko eta erabakiak guztion artean hartzeko
- Maiatzaren 16an Eskolarteko Foroa ospatu genuen, ikasturtean zehar egindako lana aurkezteko, eragile ezberdinen partaidetza maila ebaluatzeko, eskola guztion konpromisoak eta Udalarri zuzendutako eskaerak adosteko
- "Eskolara Oinez" proiektua martxan jartzeko bilera ezberdinak antolatu ditugu eta etxetik eskolara joateko ibilbide seguruen proposamena landu dugu
- Ekainaren 6an, Bidasoaldeko lehen Udala-Eskolak Foroan parte hartu genuen, ikasturtean zehar egindako lana aurkezteko eta Hondarribiko eta Irungo udal ordezkari mugikortasunari buruzko proposamenak egiteko



RESUMEN DE LOS PASOS DADOS

A lo largo del curso 2012/2013 hemos organizado diversas actividades para seguir trabajando y mejorando en torno a la movilidad sostenible:

- Diagnóstico a pie de calle, sobre la situación de las aceras, las zonas peatonales y la seguridad vial
- Repaso de los compromisos adquiridos por los centros escolares
- Impulso al proyecto "Eskolara Oinez" para promover caminos seguros de casa a la escuela
- Reuniones de los órganos de participación (foro de participación con el Alcalde, Comisión de Medio Ambiente del centro, Foro Interescolar, etc.)
- Celebración del primer Foro "Ayuntamiento-Escuela" entre Hondarribia e Irun
- Participación en otros programas educativos de contenido ambiental



HERRIKO DIAGNOSIAREN ONDORIOAK

Ikasturtearen amaiera aldera, ikasleak kalera irten ginen Hondarribiko espaloien eta oinezkoen eremuen egoera zein den berrikustera eta bide batez, oinezkoen eta bizikleta erabiltzaileen segurtasunarentzat arriskutsuak izan daitezkeen puntuak antzematera. Hauek dira emaitza nagusiak:

oztopatzen dituzten herri-lanak (garabiak, hesiak, ...), edukiontziak (espaloien edo bidegorrien gainean), zenbait espaloien erdi-erdian kokatutako farolak, eta abar.

Zenbait bizikleta erabiltzaile, bidegorritik edo errepidetik joan beharrean, espaloitik edo oinezkoen eremuetatik, bizikleta gainean, doazela ikusi ditugu: Portuan, Europa ibilbidean (hondartza inguruetan) eta Baserritar etorbidean.

Honako eremuetan, bizikleta erabiltzaileak kaskoa jarrita eta oinezkoen guneak errespetatzen zituztela ikusi genuen: Puntalea, Alde Zaharra, Zumardia-Minasoroeta-Remigio Mendibu inguruak.

Badira bidegorriak gaizki erabiltzen dituzten herritarrak ere, adibidez,

hondartza inguruetan eta Ramon Iribarren pasealekuan.

Orokorrean, Hondarribiko espaloien eta oinezkoen eremuen egoera egokia bada ere, hobetu beharreko eremuak eta puntuak badira: Muliata eta Saindua inguruko espaloietatik, Institutua eta Bordari Eskolaren inguruko espaloietatik, zenbait gunetan espaloia beharrezkotzat jotzen da (Amute eta Mendelu auzoak modu seguruan lotzeko, Jaizkibel etorbidean, Satarka inguruan, ...).

Oinezkoentzat eta bizikleta edo patineteen erabiltzaileentzat arriskutsuak izan daitezkeen guneak: Labreder kalea eta Baserritar etorbidea, ikastetxe ezberdinetako sarrera eta irteerak (puntako orduan, batez ere), erdigunea

Oinezkoen joan-etorriak oztopatzen dituzten motordun ibilgailuak (autoak, motorrak eta saltokietako banaketa egiten duten zenbait kamioi) topatu genituen, besteak beste, honako zonaldeetan: Saindua eta Muliata aldean, Portuko kale ezberdinetan, Mastin, Soroetan eta Soroeta Gainen, eta gutxi batzuk, Remigio Mendiburu inguruetan eta Alde Zaharrean.

Motordun ibilgailuez gain, herriko zenbait puntutan, badaude beste-lako trabak: oinezkoen joan-etorriak

CONCLUSIONES DEL DIAGNÓSTICO

Para elaborar el diagnóstico del municipio, durante el último trimestre del curso recopilamos diferentes datos relacionados con la movilidad sostenible. Estas son algunas de las conclusiones:

- Existen obstáculos que dificultan la movilidad de personas que se mueven a pie o en bici: vehículos a motor mal aparcados (coches, motos y algunos camiones de reparto) en Saindua y Muliata, en el centro, etc. Y también otro tipo de obstáculos (contenedores, obras, ...) en el Puntal, en el Casco Histórico, en el centro, etc.
- Hemos visto que algunas personas que circulan en bicicleta lo hacen por la acera o por las zonas peatonales. Pero también hay peatones que no respetan los carriles-bici.
- Aunque en general, las aceras y zonas peatonales de Hondarribia se encuentran en buen estado, hay algunos puntos donde habría que realizar mejoras: Saindua y Muliata (aceras muy altas), alrededores del Instituto y de la escuela Bordari (algunas aceras son estrechas), etc.
- Zonas en las que es necesario realizar actuaciones para garantizar la seguridad de peatones, ciclistas y usuarios/as del patinete: calle Labreder, Baserritar etorbidea, entradas y salidas de los centros escolares, etc.





ESKOLETAKO KONPROMISOEN BETETZE-MAILA OROKORRA

Maiatzeko Eskolarteko Foroan, lehengo ikasturtean eskolek adostutako mugikortasun iraunkorrari buruzko konpromisoen betetze maila aztertu genuen. Hona hemen ateratako emaitza nagusiak:

ERDIPURDI

Lehengo ikasturtetik hona, zenbait eskoletan ingurumen hobekuntza batzuk ezarri ditugu (bizikleta aparkalekuak jartzea, komunetan paper birziklatua erabiltzea, baliabideak aurrezteko eta arduraz erabiltzeko oharrak, ...)

ONA

Etxetik eskolarako bidea, gehienetan, oinez egiten dugu. Gurasoekin autoan joanez gero, beste gelakideren batekin bidaiatzeko ohitura dugu.

Beharrezko pausoak ematen ari gara, eskola mailan, "Eskolara Oinez" proiektua martxan jarri ahal izateko


"Eskola Kirola" programako ekintzetara joateko, autoa erabiltzen badugu ere, normalean bidaia gure lagunekin partekatzen dugu


Herrian bertan egiten dituzten ibilbide motz edo ertainetan, autoa edo motoa erabili beharrean, oinez, bizikletan edo garraio publikoan mugitzera animatzen ditugu gurasoak





GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS COMPROMISOS


En el Foro Interescolar de mayo, revisamos el cumplimiento de los compromisos adquiridos por los centros escolares:

 Aunque normalmente solemos ir a pie al centro escolar, cuando nos movemos en coche, solemos compartir el viaje con nuestros/as compañeros/as de clase

 Estamos dando los pasos necesarios para poner en marcha el proyecto del "Camino Escolar"

 En actividades extraescolares como "Eskola Kirola", tenemos la costumbre de compartir el viaje en coche con nuestros/as amigos/as

 Hemos puesto en marcha algunas mejoras ambientales en los centros escolares; aparcamientos para la bici, papel reciclado para los baños, consejos para ahorrar recursos y utilizarlos de forma responsable, ...

 Animamos a nuestros padres y madres a que utilicen medios alternativos al vehículo privado (andando, en bici, en transporte público) en los trayectos cortos dentro del municipio



ZER PROPOSATZEN DIOGU UDALARI?

Hauet dira, arloaren eta garrantziaren arabera, Hondarribiko Udalari egiten dizkiogun mugikortasun iraunkorraren aldeko eskaera zehatzak:

BIDEGORRIAK

- 1 Herriko bidegorri sarea osatzea, auzoen arteko joan-etorriak ere bidegorritik atera gabe egin ahal izateko (ezinezkoa den puntuetan, bizikleta erabiltzaileen segurtasuna bermatzen duten neurriak hartzea –adibidez, herriko zenbait errepideetan autoen abiadura mantsotzeko baliabideak bideratuz-)
- 2 Baserritar etorbidean bidegorria eraikitzea
- 3 Hondarribia Irunekin bidegorri bidez lotzeko beharrezko pausoak aurrera eramatea
- 4 Gauetz ere bidegorrietan dabilzan herritarren segurtasuna bermatzeko, sare osoan argiztapen publikoa egokia dela bermatzea
- 5 Herriko auzoetan bizikleta aparkalekuak jartzeko toki aproposak bilatzea eta behar den tokietan azpiegitura hori eraikitzea (baita eskoletan edo eskoletatik gertu ere)
- 6 Eraikita dagoen bidegorri-sarean aurki daitezkeen oztupoak edo gabeziak antzeman eta horiek konpontzea

HERRIKO ESPALOIAK ETA OINEZKOEN BIDEAK

- 1 Hondarribian oinezkoen gunegia gehiago eraikitzeko aukerak aztertu
- 2 Herriko zenbait kaletan dauden espaloien egoera hobetzeko neurriak hartu (espaloiak behar den tokietan zabalduz, behar den tokietan garaiera jaitsez, dauden oztupoak edo trabak kenduz, etab.)
- 3 Ikastetxeetan bide-hezkuntzako saioak aurrera eraman, udal ordezkariak, urtarrileko Udala-Eskolak Foroan agindu zuten moduan

MOTORDUN IBILGAILU PRIBATUAK

- 1 Herriko zenbait auzotan edo eremuetan (bidegurutzeak, esaterako) eta eguneko puntako orduetan sortzen diren trafiko ilaren arazoari aurre egiteko eta bide-segurtasuna handitzeko neurriak ezartzen jarraitzea
- 2 Abiadura mantsotzeko neurriekin aurrera egin, oinezkoen eta bizikleta erabiltzaileen segurtasuna hobetzeko

- 3 Autoa partekatzeko aukerak handitzeko, Hondarribiko Udalak laguntza programa edo ekimenen bat aurrera eraman ote daitezkeen aztertzea

MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN HEZKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

- 1 Eskolako Bide Seguruak martxan jartzeko bidean ("Oinez Eskolara" ekimena), udal ordezkariak ere modu aktiboan parte hartzea
- 2 Eskolara oinez joateko bide seguruak diseinatzen hastean gain, eskolara modu seguruan bizikletan edo patinetean joateko ekimenak ere aztertzea, Hondarribiaren egoerara egokitu daitezkeenak
- 3 Urtero Udalak Mugikortasun Iraunkorraren Astearekin bat egitea (irailean baino hobe, urrian)
- 4 Autoaren erabilera aztertu eta mugikortasun iraunkorraren inguruko aholkuak herritarren artean zabaltzeko, besteak beste, erosketak egiterako orduan autoaren aurrean erabili daitezkeen bestelako garraio bideak sustatuz (busa, bizikleta, oinez, ...)

GARRAIO PUBLIKOA

- 1 Hondarribia eskualdeko gainerako herriekin nahiz eskualdetik kanpoko herriekin lotzeko dagoen garraio publikoko eskaintza hobetzeko eta autobusaren erabiltzaile kopurua handitzeko lanean jarraitu
- 2 Herrian kokatutako bus markesinak egoera onean mantentzeko beharrezko jarraipen lanak egitea eta geltoki guztietan zerbitzuari buruzko informazioa badagoela bermatzea
- 3 Ahal den bus geltoki gehienetan estalpea jartzea (markesinak bus zutabeen ordez)

PROPUESTAS AL AYUNTAMIENTO

Tras el trabajo realizado durante el curso escolar, hemos sacado una serie de conclusiones sobre la situación de Hondarribia en torno a diferentes aspectos relacionados con la movilidad sostenible. Estas son las propuestas que le planteamos al Ayuntamiento:



- Completar la red de bidegorris del municipio
- Construir un bidegorri en Baserritar Etorbidea
- Dar los pasos necesarios para conectar Hondarribia e Irun mediante carriles bici
- Poner en marcha las medidas necesarias para seguir mejorando la oferta de transporte público existente
- Realizar el seguimiento de la situación de las paradas de autobús que hay en el municipio y realizar los trabajos de mejora necesarios
- Analizar la posibilidad de construir más zonas peatonales
- Realizar las actuaciones necesarias para mejorar las deficiencias detectadas en algunas aceras y zonas peatonales del municipio
- Poner en marcha las medidas oportunas frente a los atascos que se producen en horas punta y mejorar la seguridad vial en el municipio
- Organizar actividades de educación vial en los centros escolares
- Participación activa del Ayuntamiento en el proyecto "Eskolara Oinez", para garantizar itinerarios seguros a pie, de casa al centro escolar

